

Donostia-San Sebastián hiriburuak eta Debagoiena eskualdeak izan dute 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaile gehien, ehunekotan

Berrikuntzari lotutako jardueren gastu gehiena hiriburuetan bildu da

Eustaten datuen arabera, 2010. urtean berrikuntzan aritu zen Euskal AEko 10 langile eta gehiagoko enpresen ehunekoa 38,9 izan zen. Baina ehuneko horrek aldaketak izan ditu, eskualdeen arabera aztertuz gero.

1. taula: Berrikuntzan ari diren eta berrikuntzako gastua duten 10 langile eta gehiagoko establezimenduen ehunekoa. 2010. urtea


	Berrikuntza teknologikoa (%)	Berrikuntza ez teknologikoa (%)	Berrikuntza guztira (%)	Gastua berrikuntzan (milioi €)	Δ % 2010/09
Euskal AE	30,1	26,2	38,9	2.159,5	-2,7
Vitoria - Gasteiz	30,7	23,7	39,0	338,0	-0,1
Bilbao	24,6	23,0	32,9	267,4	-3,9
Donostia - San Sebastian	34,5	38,7	55,3	180,9	-12,7
Araba / Alava	30,1	24,7	41,2	416,2	-6,3
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	30,8	23,8	39,2	353,7	-3,5
Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa	35,9	23,0	41,3	8,5	-20,3
Kantauri Arabarra / Cantábrica Alavesa	37,0	28,6	48,0	39,0	-18,3
Arabako Besteak / Resto de Alava	40,6	30,1	53,7	14,9	-22,3
Bizkaia	25,6	23,5	34,0	1.025,2	1,2
Arratia Nerbioi / Arratia-Nervión	31,8	27,8	40,3	18,6	-22,9
Bilbo Handia / Gran Bilbao	24,6	22,7	32,5	820,2	1,9
Durangaldea / Duranguesado	29,2	26,3	38,8	107,9	-5,7
Enkartzazioak / Encartaciones	22,7	22,3	30,6	9,2	20,1
Gernika-Bermeo	32,0	26,5	43,1	20,4	-1,3
Markina-Ondarroa	24,7	22,5	34,3	17,2	-0,8
Plentzia-Mungia	33,6	30,5	44,6	31,7	32,8
Gipuzkoa	35,8	31,1	45,2	718,1	-5,8
Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	27,4	24,0	34,7	39,9	-18,6
Deba Beherea / Bajo Deba	39,1	32,3	48,5	58,7	3,3
Debagoiena / Alto Deba	39,2	34,8	50,4	111,9	-0,5
Donostialdea	35,0	31,1	44,5	307,5	-11,8
Goierri	39,8	29,9	48,0	122,6	20,9
Tolosaldea / Tolosa	37,3	33,6	48,0	28,5	-20,7
Urola-Kostaldea / Urola Costa	39,2	33,6	48,0	49,1	-15,7

Iturria: Eustat. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

Honakoak nabarmendu dira: Arabako Gainerako Eskualdeak (enpresen % 53,7 aritu dira berrikuntzan) Araban, Bizkaian Plentzia-Mungia (% 44,6) eta Gipuzkoan Debagoiena (% 50,4). Enpresa berritzaileen ehuneko txikiena izan duten eskualdeak, aldiz, beste hauek izan dira: Arabako Lautada (% 39,2) Araban, Bizkaian Enkarterriak (% 30,6) eta Gipuzkoan Bidasoa Beherea (% 34,7).

Euskal AEko hiriburuei dagokienez, Donostia-San Sebastián nabarmentzen da (enpresa berritzaileak % 55,3 izan dira); gero Vitoria-Gasteiz (% 39,0) eta Bilbo (% 32,9) datoz.

1. grafikoa: Berrikuntza teknologikoaren gastuaren banaketa. 2006-2010. (milioi eurotan)



Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

Berrikuntza jardueren gastuari dagokionez, hiriburuak hartzen dituzten eskualdeetan bildu zen 10 langile edo gehiagoko enpresen kopuru handiena. Araban eta Bizkaian eskualde horiek lurraldeko gastuaren % 80tik gora izan dute, baina Gipuzkoan % 43. Araban, 416,2 milioiko gastutik 353,7 Arabako Lautadak egin du; eta Bizkaian, 1.025,2 milioitik 820,2 Bilbo Handian gastatu dira. Gipuzkoan 718,1 milioitik 307,5 Donostialdean gastatu dira, baina lurralde horretako beste eskualde batzuetan ere kopuru handiak erabili dira: Goierri 122,6 milioi eta Debagoien 111,9 milioi. Gainera, ehun milioitik gorako gastua izan du Bizkaiko Durangaldeak (107,9 milioi).

Azkenik, Bizkaia (+% 1,2) eta haren Bilbo Handia eskualdea (+% 1,9) salbuespen gisa hartuta, bai Araban (-% 6,3) bai Gipuzkoan (-% 5,8) berrikuntzako jardueretan egindako gastuak behera egin du 2010. urtean eta, ondorioz, eskualde gehienetako gastuak ere behera egin du.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako: José Miguel Escalada

Tel.: +34-945-01 75 96 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Datu-bankua